

Gurasoak eskolako patioan euskaraz hasi zirenekoa

Arabako bertso txapelketaren errebantxa egun batez, Euskal Jai bete-betea antolatu zuten Arraia-Maeztun. Orain dela bi urte. Amezti euskara elkartearen lehenengo ekintza izan zen hura. Ume txikien gurasoek osatzen dute batez ere elkarte, eta euren arteko harremanetan aldaketa igarri dute: azken bi urteotan eskolako patioan euskara gehiago entzuten da.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

MENDIALDEKO ARABAN, herri txikiz osatutako udalerrria da Arraia-Maeztu, 700 biztanle ingurukoa. Duela urte bitik hona ekintzak antolatu eta herriari bizitasuna ematen dabilza Amezti euskara elkarte-kideak. Herri handiengan, Maeztun, egiten dituzte ekintza gehienak. Maeztuar nagusiek aspaldi galdu zuten euskara, baina bada belaunaldi bat batez ere eskolan euskaldundutakoa. Orain guraso dira, eta euskara berreskuratu, eta transmisioan lan egiteko ilusioarekin daude euskara elkartearen.

Duela urte bi hasi zen abentura. Ordurako bertso eskola zegoen, eta bospasei lagun zebiltzan, tartean Itxaso Balza de Vallejo: “Topagunetik deitu gintuzten, galdetuz ea zerbait handiagoa antolatzeko prest egongo ginatkeen”. Herrian deialdia egin eta jende ugari agertu zen: “Beharra zegoela konturatu ginen”.

Eta behar horretatik, Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren errebantxa aitzakia hartuta, Arraia-Maeztun Euskal Jai antolatu zuten. Herrietako taldeekin herri kirolak, umeentzako jolasak, bertso poteoa, bazkaria, dantza plazan... “Izugarri potentea izan zen”, Belen Garulo elkarte-kide eta euskara teknikariaren berbetan. Bere iritziz, elkartzeko beharrak eragin zuten Euskal Jaiaren arrakasta: “Ordura arte ez zegoen ezer eta elkartu izana gauza handia izan da guretzako”.



AMEZTI EUSKARA ELKARTEA

Duela bi urte, Arraia-Maeztu udalerrian, Euskal Jai antolatu zuen Amezti euskara elkarteak. Belen Garulo elkarte-kidearen ustez, arrakastatsua izan zen ekitaldia. Jaiak erakutsi zuen euskaldunek elkartzeko beharra sentitzen dutela.

Gurasoetatik umeetara

Urte bi hauetan hainbat saltsatan ibili dira Amezti euskara elkarte-kideak: mendi martxak, tailerrak, hitzaldiak, umeentzako zinea, Kanpezuko taldearekin batera Mintzalagun programa... Gurasoak izanda, gurasoengan eta umeengan pentsatuta egiten dituzte ekitaldi gehienak. Helburuak argiak dira: “Umeek ikusten dute euskara eskolatik kanpo ere hitz egiten dela eta zelan hitz egiten dugun helduok gure artean”. Gurasoen arteko harremanetan aldaketa igarri egin dute Garulok eta Balza de Vallejok: “Eskolako patioan ikusten da egoera nola aldatu den, gurasoon hizkuntza aldatu egin da”. Lehena-

go, guraso batzuk euskaldunak zirenik ere ez zekitela diote: “Sorpresak hartu ditugu batzuekin; ikasi zuten, baina ez dute erabiltzen, eta umeari ‘etorri’ esatean ez dakizu benetan euskara dakiten”.

Garulok eta Balza de Vallejo 18 urtegeaz hasi ziren euskara ikasten, beste hainbat gurasoren antzera. Bi urte hauetan gurasoen arteko erabilerara handitu bada ere, umeen artean oraindik ez dute askorik nabaritu, nahiz eta gero eta ohitura gehiago dagoen. Maeztuko eskolan B eta D ereduan ematen dituzte klaseak, beraz umeek ezagutza badaukatela eta, erabilerari buelta emateko itxaropentsu daude.

Antolatutako ekintzekin oso gustura badaude ere, hutsunetxo bat dagoela aitortzen dute Garulok eta Balza de Vallejak: guraso ez diren herritarrak. “Egon badaude elkar-tean, eta etortzen dira mendi martxetara eta... baina egia da ekintzak antolatzerakoan familiei begirakoak etortzen zaizkigula burura”. Elkar-tearen helburuetako bat adin tarte zabalagora eta udal osora hedatzea da. 17 herri txiki daude Arraia-Maeztun, eta hain erraza ez bada ere, horretan jardungo dute.

Erdaldunengana gerturaten

Hain herri txikia izanda, herritar denek ezagutzen dituzte honezkero Ameztiko kideak. Hasieran baina, taldearekiko mesfidantza apur bat egon zela gogoratzen du Belen Garulok: “Jendeak ez zekien elkar-tea zertara zetorren, euskara ez da ohiko gauza hemen”. Elkar-te bat zegoela bai, baina zertarako, ez zuten ulertzen; “baina ohitzen hasi direla uste dut, eta euskaldunak ez izan arren, gurasoak umeengatik hurbiltzen dira zinemara edo mendi martxetara”. Elkar-tearen komunikazio bidea e-postaz gainera, umeen eskolako motxila dela dio Garulok: “Herri osora begirako ekintzak izaten dira, eta beti saiatzen gara euskaraz egiten dugula argi uzten”.

Harremanak indartzen

“Esango nuke euskarari esker harreman handiagoa dugula euskaldunok beste herriekin beste biztanleek baino”, azaldu du Belen Garulok. Izan ere, Maeztun bertan

Ametsetatik amezti

AMETZA zuhaitzaren izenetik dator Amezti euskara elkar-tearen izena. Herrian, Izkiko Natur Parkean, haritz mota hori da zabalduena. Izkikoa Europako amezti-rik handiena da.

Elkarteko bileretan normalean sei eta hamar pertsona artean batzartzen dira: “Bikotekidea umeekin gelditzen da, eta beraz, zortzi familia inguru garelara esan dezakegu”. Batzuetan ludotekan

egiten dituzte batzarrak, batzuk umeak zaintzen, eta besteak koardernoa eskuan. Arraia-Maeztuko herrietatik handienez, Maeztun, edukitzen dute elkargunea. Han dute eskola, taberna, dendak...

Ikasturte berrirako egutegia egiteko bezperetan elkartu gara eurekin. Mendi martxak, tailerrak, aurten Korrika ere etorriko da... Ideiak landu eta orain arteko ilusioarekin ekiteko prest daude.

egindako lanaz gainera, Urbizu eta Kanpezuko euskara elkar-teekin ere harremana daukate Ameztiko kideek, Mintzalaguna eta bertso munduari esker. Herrian bertan, guraso eta familien arteko harremanak indartu egin dira euskara elkar-teko ekintzekin.

ten kaleratutako V. Inkesta Sozio-linguistikokoaren arabera, azken hogeitertan elebidunen kopurua hiru-koiztu egin da Araban. Gazteen erdiak badaki euskaraz, baina %7k baino ez du erabiltzen.

Mendialdean duela gutxira arte ez dute euskara teknikaririk eduki. Bidea hasita dago orain, eta ikusten dute, Kanpezun, adibidez, euskara elkar-teak lan handia egin duela: “Urteak dabilta lanean, eta eragin handiagoa dute herrian; udalak ere beste ikuspuntu bat dauka euskararekiko. Esaterako, argitaratzen duen dena elebiduna da”, azaldu du Belen Garulok: “Horiek gauzak urteekin lortzen direla uste dut”. Eta eurek ere lortuko dutela uste dute Ameztiko kideek: “Maeztun aldaketa igarri da, patioan batez ere. Oso herri txikiak dira, eta gauza txikia dirudien hori, asko da guretzako”. ■

Maeztuko eskolan B eta D ereduan ematen dituzte klaseak, beraz umeek ezagutza badaukatela eta, erabilerari buelta emateko itxaropentsu daude

Bidea hasi da

Euskararen berreskurapenerako kontzientzia ereinda dago, eta fruituak batzen dabilta. Araba osoan euskarak erabileran erronka handia daukala badakite Ameztiko kideek, “Euskal Herri osoan bezala”. Aur-



LUA arkitektoak
 hirigintza
 hirigintza aholkularitza
 udal planak
 urbanizazioak
 periferiazioak
 balorazioak
 etxebizitza proiektuak
 bigaitzeak
 barne diseinua...

Tel 948 13 26 97
 Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña
 lua@luark.com

**Jon Arruabarrena
 Psikologoa**

Francisco Ibarra 6 · 48200 Durango, Bizkaia
 ☎ 946 033 246 / 629 245 728
 jon@psikologo.biz

Gure Kide
 Albaitaritza klinika

Murueta Auzoa, 1
 48220 MATIENA (Abadiño)
 Tel.: 94 620 16 21
 Larrialdia: 655 88 14 22
 www.gurekide.es

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
 Kirurgia - Ospitalizazioa - Ite-apainketa - Osagarriak